



ARANTZAKO UDALA

EZ-OHIKO OSOKO BILKURA AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ez-ohikoa

Eguna: 2024.11.22

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. 2023ko kontuen itxiera onespina.
2. 2025eko zerga, tasa eta prezio publikoen onespina.
3. Iruzzurren Aurkako Planaren onespina.
4. Iruzzurren Aurkako Batzordearen izendapena.
5. Etika eta jokabide kodearen onespina.
6. Iruzzurren Aurkako adierazpena.



ARANTZAKO UDALA

1. 2023KO KONTUEN ITXIERA ONESPENA.

Idazkariak adierazi du 2023ko kontuen likidazioa 2024ko azaroaren 20ko 189/2024 Alkate Ebazpen bidez onetsia izan zela. Era berean, 2023ko kontuen itxiera onesteko 2024ko azaroaren 20ko data duen idazkari-kontuhartzailearen txostenean xedaturikoa azaldu du, bai eta likidazioa egiteko kontuan hartutako dokumentazio guztia ere.

Horri dagokionez, kontuen itxiera onesteko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 242 artikuluan xedaturikoari jarraiki egin beharra dela azaldu du idazkariak.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- 2023ko kontuen itxierari hasierako onespena ematea.
- 2.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabortz egunez, iragarki hau herriko iragarki-taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

2. 2025EKO ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ONESPENA.

Idazkariak 2024ko karga tasen, ordenantza fiskaletako tasen eta prezio publikoen egungo egoera azaldu du.

Era berean, aipatu du tasak eta prezio publikoak igotzea edo ez beranduago onartu daitekeen arren, 2025eko karga-tasak lehenbailehen onartu beharko lirakeela, nahitaezko zergak direlako eta zerga horietako aunitz urteko ordainarazpenekoak direlako. Hori guztia Nafarroako Ogasunei buruzko Foru Legearen 12. artikuluan eta 13.5. puntuko bigarren lerrokada artikuluan xedaturikoaren arabera.

Horrela bada, osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, ERABAKI DU:

- 1.- 2025eko ekitaldirako honako karga-tasa hauek onartzea:
 - Lurralde-ekarpina: % 0,25.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,4.
 - Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezarritakoa.
 - Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga: % 4.
 - Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:
 - o Zerga-oinarria: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehienezko koefizienteak.
 - o Karga-tipoa: % 8.
- 2.- Gainerako tasa eta prezio publikoak aitzineko ekitaldian bezala mantentzea.
- 3.- Erabaki hau 2025eko urtarrilaren 1ean sartzeari indarrea eta indarrean jarraitzea hura indargabetzea edo aldatzea erabaki arte.
- 4.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.



ARANTZAKO UDALA

3. IRUZURRAREN AURKAKO PLANAREN ONESPENA.

Kontuan hartuta HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzten duenak (EDL 2021/34548), ezartzen duela Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «Iruzurraren aurkako neurrien plan» bat izan behar duela, bermatu eta deklaratu ahal izateko, dagokion jarduketa-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindu horrek 90 eguneko epea ezartzen du, agindu hau indarrean jartzen denetik edo, hala badagokio, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzen parte hartu dela jakiten denetik, iruzurraren aurkako plana onartzeko.

Alkatetzaren martxoaren 5eko 28/2024 Ebazpenaren bidez, iruzurraren aurkako plana onartzeko espedienteari hasiera ematea agindu zen.

Ikusirik idazkari-kontuhartzaileak 2024ko martxoaren 5ean egindako txostenak.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Espedientean agertzen den Arantzako Udalaren Iruzurraren Aurkako Plana onartzea.

2.- Arantzako Udalaren salaketen kanpoko kanala gaitzea eta abian jartzeko agintzea. Kanal hori Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan eta Arau-hauste arauemaileei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitako salaketa edo informazio kanal gisa eratzten da.

3.- Iruzurraren Aurkako Plana udaleko zerbitzuei jakinaraztea, beraien ezagutza eta ondorioetarako.

4. IRUZURRAREN AURKAKO BATZORDEAREN IZENDAPENA.

Idazkariak azaldu du, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera, Iruzurraren aurkako Batzorde bat eratu behar dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Nagore Madariaga Iriarte (udaleko idazkari-kontuhartzailea), Josetxo Urreta Arribillaga (udaleko administrari ofiziala) eta Saturnino Larralde Ibarrola (udaleko alkatea) izendatzea Iruzurraren aurkako Batzordeko kide.

5. ETIKA ETA JOKABIDE KODEAREN ONESPENA.

Idazkariak adierazi du, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedaturikoa ikusirik, Arantzako Udalaren etika eta jokabide kodea onartzea gomendatzen dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:



ARANTZAKO UDALA

1.- Arantzako Udalaren etika eta jokabide kodea onartzea.

6. IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPENA.

Idazkariak azaldu du, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedaturikoaren arabera, iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala onartzea gomendatzen dela, zeina Iruzuraren Aurkako Planean II. Eranskin bezala agertzen den.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Iruzuraren aurkako adierazpen instituzionala onartzea.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

2024.11.2

2

18:54:56

+01'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

Ziurtatzen dut

IDAZKARIA,

Data: 2024.11.22

18:30:55 +01'00'

Nagore Madariaga Iriarte